

BILLY ELLIOT



BILLY ELLIOT

Gran Bretaña 2000 , 105 min. Zuzendaria : Stephen Daldry

Elkar ezagutzen dugu(DBH)
Arabako Hezkidetza Mintegia
2002-2003

BILLY ELLIOT

HELBURUAK

- Nor bera izateko gaitasuna garatu
- Norberaren zaletasunak eta iritziak era eraginkorrean adierazi
- Sexua, ideologia, etnia...direla eta egon daitezkeen aurriritziak baztertu
- Familia eta lagunengandik datozen eragin positiboak identifikatu

JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Jarduera hauekin harreman pertsonalak, laguntasuna, komunikazioa, baloreak...aztertuko ditugu. Baina beti ere kontuan izan behar dugu hainbat momentutan ikasleek ez dutela beraietaz hitz egin nahi izango, eta errespetatuko dugu Horretan laguntzeko giro aproposa bilatu behar dugu

Jarraituko dugun planteamendua hau izango da:

1. Sarrera saioa. Filmea analizatuko dugu: argumentua eta pertsonaiak
2. Lau saiotan hainbat aspektu lantzeko: norbere identitatea, eraginak, baloreak....

FILME HONETAKO UNE INETRESGARRIENAK

Inglaterrako meatzari herria den Durham County-n 11 urte dituen Billy Elliot izeneko mutikoa bizi da. Bere anai Tony-rekin konpartitzen ditu gela eta musikarako zaletasuna. Bere aita, irtenbiderik aurkitzen ez duen grebatic oso kezkatuak dagoen meatzari porrokatua eta emaztearen heriotzaren ondorioz jasotako sufrimendua gordetzen ez duen gizona dugu. Aitak, bereak ziren guanteekin boxeoa praktikatzera bilatzen du seme txikia gimnasia. Baina toki berean egiten du baleta neskato talde batek ere. Billyk benetan atsegin duena baleta egitea dela ikusiko du. Wilkinson anderea, baletako zapatilak utziko dizkion irakaslea da horretaz ohartuko dena. Billyk ez du bat ere atsegin, baletan ari diren mutikoak marrikak direla jendeak uste izatea. Gauzak argi utzi nahi ditu. Liburutegian liburu baten bitartez bilatzen du informazioa. Bat aurkitu, arretaz irakurri eta ariketarik garrantzitsuenak egiten hasiko da. Baina aitak ez du bere zaletasuna onartuko eta oso gogor eztabaidatuko dute. Billy, Wilkinson anderearekin etxera joango da. Han irakaslearen senarraren nabarmenkeriak ezagutuko ditu. Oso familia bitxia irudituko zaio. Billyk alde egin behar duenean, Wilkinson anderak, Royal Ballet Eskolarako sarrera frogak gainditzeko prestatu behar duela esango dio. Berak lagunduko dio. Lanean hasiko dira biak. Amak Billy-ri idatzitako eskutitz bat irakurri eta Billyren abestirik gustukoaren erritmoan dantzatuko dute. Billyren etxean giro eskasa dago. Tonyk ekintza gogorretan parte hartu nahi du eta aitak ezetz esango dio. Eztabaidan hasi eta elkar jotzera iritsiko dira. Egoera horretan Billyk ezin du lanik egin: Gaizki ateratzen zaizkio ariketak eta Wilkinson anderearekin eztabaidatuko du.

BILLY ELLIOT

Azkenean ere lagun egin eta elkar besarkatuko dute. Irakasleak "El Lago de los Cisnes" balet klasikoari buruz hitz egingo dio eta Billyk interes handia erakutsiko du balet horretako istorioaz.

Tonyk poliziarekin izandako gertakari bat dela eta ezin izango du Billyk dantza frogara joan. Gainera, oso maite duen amaren pianoa hautsiko du aitak. Eta Billy, bere laguna Michael gay denaz ohartuko da ustekabeaz.

Billy gero eta ziurrago dago egin nahi duenaz, eta gerta dakiokenari beldurrik gabe, aitaren aurrean dantzatzea erabakiko du. Eta azkenean ere, aita semearen alde jarri eta greba alde batera uzteko prest agertuko da Billyrentzat dirua lortu ahal izateko. Baina herria izango da honen ekimena hartu eta froga hori egiteko behar duen dirua bilduko duena.

Aitak lagundurik Londresera joango da Billy. Froga gainditu eta dantza egiten duenean oso ondo sentitzen denaz ohartuko da. Eskutitz baten bitartez jakingo du froga gainditu froga gainditu duena. Agur esateko garaia iritsiko da

Denborak aurrera egin du eta dagoeneko 25 urte ditu Billyk. "El Lago de los Cisnes" baletarekin izango du debuta. Aita, anaia eta bere lagun Michael joango dira ikustera. Izugarritzko jauzia eginez, airean delarik agertuko da Billy eszenatokian

BILLY ELLIOT

A. FITXA .MUTURREKOA JASOKO DUZU

AITA: Baleta
BILLY: Zer du txarrik?
AITA: Zer duen txarrik?
BILLY: Ohikoa da
AITA: Ohikoa dela?
AMONA: Ni balet klasetara joaten nintzen
BILLY: Ikusten?
AITA: Bai, ondo dago zure amonarentzat, neskontzako baina ez mutilentzako ez Billy. Mutilek futbolean, boxeoa edo borrokan egiten dute. Baina, ez dute baletik egiten!
BILLY: Nor joaten da borrokatzen ikastera?
AITA: Ez hasi, Billy
BILLY: Ez dakit zein alde txarri duen
AITA: Ondotxo dakizu zer duen
BILLY: Ez dakit
AITA: Bai, badakizu
BILLY: Ez dakit
AITA: Jakina dakizula. Nor naizela uste duzu? Ondotxo dakizu
BILLY: Zer? Zer esan nahi duzu aita?
AITA: Muturreko bat jasoko duzu
BILLY: Denok ez dira marrikak. Hainbat dantzari atletak bezain gogorrak dira. Zer diozu Wein Sleep-etaz?
AITA: Hara seme, aurrerantzean ahaztu egingo duzu balet nazkagarri hori eta baita boxeoa ere. Nik kristorenak egiten ditu 50 penike horiegatik eta zu... Ez, aurrerantzean hementxe egongo zara amona zaintzen, ulertzen? Beno...
AMONA: Jarraitu izan banu, dantzari profesionala izatera iritsiko nintzela diote
AITA: Isilduko zara?
BILLY: Gorroto zaitu! Kabroi hutsa zara!

1. Zein da Billy eta bere aitak elkarrekin hitz egiteko duten era?
2. Zure ustez, zeinek dauka arrazoi?
3. Nola uste duzu sentitzen dela Billy-ren aita?
4. Eta Billy?
5. Zein izango litzateke zure erreakzioa gurasoek zure gustuko gauzak egiten utziko ez balizute
6. Zein erreakzio izango lukete nire gurasoek haien gustukoa ez den ekintzaren batean arituko naizela esango banie?

BILLY ELLIOT

A. FITXA .MUTURREKOA JASOKO DUZU

Saia zaituz, bai Billy zein aitaren jarrera tolerantetago eta baikorretago izango den aurreko elkarrizketa berridazten

Hasiera batean Billy eta bere aitaren harremana oso gogorra bada ere, gauzak erabat aldatuko dira Billyk Gabon egunean gimnasioan aitaren aurrean dantzatuko duenetik

1. Zergatik ematen da Billy-ren aitarengan sortzen den jarrera aldatuta?
2. Zein zentzutan eboluzionatzen du filmean zehar bien arteko harremanak?
3. Zer egiteko dago prest Billyren aita semearekin laguntzeko?Zergatik?
4. Azkenean, nortzuk dira Billy-ri erabakia hartzen lagunduko diotenak?Nola egin dute?
5. Zure ustez, beharrezkoa al da ulertua sentitzea?
6. Zein egoeretan egoten zara lotsaturik taldean eta zeintzuetan zaren modukoa
7. Besteiei entzuteak gatazka asko ekidin lituzkeela uste al duzu?

BILLY ELLIOT

B. FITXA . BALETA EZ DA MUTILEN KONTUA

Billyk bizi duen giroan ez dirudi mutilek baleta egitea ontzat hartua dagoenik. Izan ere, nesken eta homosexualen ihardueratzat hartzen da. Herri honetan mutilek, boxeo bezalako gizonzkoen kirolak egin ohi dituzte

BOXEO ENTRENATZAILEA: Eroaldia eman dion marika bat dirudi. Jainkoarren Billy Elliot, lotsagarria zara guante hauek, zure aita eta gimnasio honetako tradizioarentzako!

(...)

AITA: Bai, zure amonarentzako. Neskentzako, ez mutilentzako Billy. Mutilek futbolearen, boxeoan edo borrokatu egiten dute. Baina, ez dute baletik egiten!

- Billy-ren aitak, zergatik hartzen du baleta nesken edota homosexualen gauzatzat?

- Bat al zatoz Billyren aitak dionarekin?. Arrazoitu zure erantzuna

- Billy Elliot filmearen istorioak izan du eraginik zure ideiaren batean?
- Zeinetan?

Pentsatu barik lotu lanbide bakoitza sexuetako batekin

	Gizonzkoa	Emakumezkoa
Zirujaua		
Irakaslea		
Ingeniaria		
Polizia		
Auto gidaria		
Idazlea		
Margolari artistikoa		
Dantzaria		
Administraria		
Gaueko zaindaria		
Meatzaria		

Zenbait lan eta iharduera "emakumeen lan"tzat hartuak dira .Hauetako arrazoiaren bategatik izan daiteke?

- Prestakuntza gutxiago eskatzen dute
- Gutxiago ordaintzen zaie
- Izaeraz, emakumeak gaitasun handiago du lan hori egiteko
- Besterik.....

BILLY ELLIOT

D. FITXA . HONELAKOA NAIZ

1. Zer egiten zaitu zoriontsu? Zer nolako gauzak egiten zaituzte zoriontsu?
2. Zer nolako zaletasunak (hobby)dituzu?.Horietako zeintzuk egiten dituzu?Zer nolako maiztasunez? Aski al da?

Zaletasuna/hobby	Bai/Ez	Maiztasuna

3. Zure ustez, zeintzuk dira zure gaitasunak?Horietako zeintzuk adierazten dituzu?

	GAITASUNAK	ADIERAZTEN DUT
FISIKOKI		
INTELEKTUALKI		
IZAERA		
EMOZIONALKI		
HARREMANETAN		

4. Baten bat adierazten ez baduzu zergatik ez duzu beste guztien aurrean azaltzen?Arrazoi bat izan daiteke mutila edo neska izateagatik?

IRAKASLEARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Jarduera hau egiteko sei saio erabiliko ditugu

Lehen saioa

1. Saio honetan talde handian egingo dugu lana . . Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea .Beharrezkoa ikusten badugu rolak banatuko ditugu: moderatzailea, denboraren kontrolatzailea, behatzailea....
2. Hasi baino lehen jardueraren helburuak eta egiteko modua azalduko dizkiegu.
3. Aurkeztuko diegu ere ikusiko dugun filma
4. Filma ikusteko saio hau eta hurrengoa erabiliko dugu

Bigarren saioa

1. Bukatuko dugu filma ikusten

Hirugarren saioa

1. A. Fitxaren galdera sorta beteko dute
2. Hasieran bakarkako lana da, beraz gela horren arabera antolatuko dugu eta horretarako dauden arauak gogoratuko ditugu
3. Komenigarria da ondo azaltzea galdera bakoitzaren esanahia eta adibide batzuk ipintzea
4. Giro lasaia izateko eta kontzentratzen laguntzeko erlaxazio txikia egingo dugu hasi baino lehen
5. Galderak egin ondoren taldeka jarriko dira eta egindakoa komentatuko dute
6. Taldeak egingo ditugunez, antolamendu honek eskatzen dituen arauak eta rolak gogoratuko ditugu.Beharrezkoa ikusten badugu behatzailea jarriko dugu

Laugarren saioa

1. Saio honetan talde handian egingo dugu lana . . Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea .Beharrezkoa ikusten badugu rolak banatuko ditugu: moderatzailea, denboraren kontrolatzailea, behatzailea....
2. Talde txikietan egindakoa talde handian komunean jarriko dute
3. Komenigarria da denon artean ondorioak ateratzea eta kronistak (baldin badago) notak jasotzea

BILLY ELLIOT

Bosgarren saioa

7. B. Fitxaren galdera sorta beteko dute
8. Hasieran bakarkako lana da, beraz gela horren arabera antolatuko dugu eta horretarako dauden arauak gogoratuko ditugu
9. Komenigarria da ondo azaltzea galdera bakoitzaren esanahia eta adibide batzuk ipintzea
10. Giro lasaia izateko eta kontzentratzen laguntzeko erlaxazio txikia egingo dugu hasi baino lehen
11. Galderak egin ondoren taldeka jarriko dira eta egindakoa komentatuko dute
12. Taldeak egingo ditugunez, antolamendu honek eskatzen dituen arauak eta rolak gogoratuko ditugu. Beharrezkoa ikusten badugu behatzailea jarriko dugu
4. Gero talde handian egingo dugu lana . . Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea . Beharrezkoa ikusten badugu rolak banatuko ditugu: moderatzailea, denboraren kontrolatzailea, behatzailea....
5. Talde txikietan egindakoa talde handian komunean jarriko dute
6. Komenigarria da denon artean ondorioak ateratzea

Seigarren saioa

1. Saio honetan bakarka egingo dugu lana . . Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea .
2. Giro lasaia izateko eta kontzentratzen laguntzeko erlaxazio txikia egingo dugu hasi baino lehen
3. D. Fitxa beteko dute.
4. Nahi izanez gero egindakoa konpartituko dute
5. Gogoratu karpeta pertsonalean bete behar dutela egindako guztia